



Mila eskur "Pantab Boatriz" - lan honetarako eman digun laguntzagatik

Argitaratzailea: Gaztelania Alaila. Hezkuntza Departamentua / Inprimaketa: Castuera Industrias Gráficas, S.A. - L.C. - NA-277/2011 © Argazkia/Diseinu grafikoa: Asis Bastida

Fikzioaren generoak

Familia maiteak

Ikasturte berria hasi, eta harekin batera eskolak duen helburu behinenetako bat ere berritzen da: eskoletako neska-mutil guztien irakurmena hobetzea. Hori iristeko, ezinbestekoak dira familiaren lana eta laguntza, are gehiago sortu nahi dena familiako guztien zaletasuna bada.

Aurten fikzioa hartu dugu irakurgai proposamentzat. Fikzioaz pentsatu eta eleberria heldu zaigu gogora, baina eleberria beste genero bat besterik ez da, mitoekin eta ipuinekin batera fikziozko literatura osatzen duena. Haren gaiak, pertsonaiak, argudioak, hain dira askotarikoak non garai guztietan sormenaren parterik handixkoena bat fikzioan mamitu den.

Gomit egiten dizuegu, bada, liburuxka hau irakurtzera, genero guztion ezaugarriak eta haien arteko antz-diferentziak azaltzen dituen. Horrez gain, laueta hogei baino gehiago tituluren aukera bat eskaintzen dizuegu; horietan bai helduen eta bai ikasleen interesak eta gustuak hartu dira aintzat, zein ere edadekoak garen, denok etengabe formatzen ari baikara irakurle gisa.

Irakurraldi onak opa dizkizuegu.

Zuzendari taldea

Fikzioaren generoak

Testuetan gordetako ahotsen bitartez, antz ematen diogu prosa batek zer tonalitate dituen, zer sakoneko egitura, zer musika, zer sentsualitate... bali-teke testutik sortzen den ahotsa, izan ere, beraren metafora izatea, metafo-retan ederrena, eragingarriena, ahots horrek lagundu egiten baitu zentzua eraikitzen, irudimenetik sortutako alegiazko ahotsa bada ere. Gabriel Janer Manila, <i>Literatura oral y ecología de lo imaginario</i>, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 2010
--

Gure bizitzak kontaeraz leher egoten dira: kontaera arrunt nahiz harrigarriak, norbe-raren bizitzarenak nahiz besterenarenak; urrutiko nahiz hurbileko gertaera-egoeren gainekoak; fikziozko kontaerak nonahi, pelikulak, TBko sailak, liburuak, jokoak... Zer-gatik hartzen ote du kontaerak hainbesteko tokia gizakiaren kulturetan, gizarteko hartu-emanetan? Kontaerak, denbora iheskorrenen aurrean, zentzua (esangura, onarpena) ekartzen duelako ote? Menturaz bai.

Kontaerek hizkuntza dute eramanbide eta oroimena eraikigai. Gizaki bakoitzak, jaiotzen denez gero, eta besteeikio harremanetan, ahozko hizkuntza garatu, bizi-penez elikatu eta bere komunitateko kultura barrendu egiten du; bere buuruarekin solasean, oroimen bat erregistratu eta irudimenezko mundu bat lantzen du. Zume horiekin, nork bere bizi-kontaera propioa eraikitzen du; bai, denak gara kontalari,eta bizitza kontatzen dugun bakoitzean zentzua sortzen dugu halabehararren aurrean.

Kontaera-mota batzuetan irudimenezko osagaia izaten da nagusi; horiek fikziozko kontaerak dira, modu bat baino gehiagotan igortzen ahal direnak: ahoz (ahozko kontaera), idatziz (liburuak) edo irudiz (literatura grafikoak, komikia). Fikzio egileak, eskuarki, ez du asmorik izaten irakurleekin bizi-kontaera bat partekatzeko, baizik eta pertsonaia batzuen bilakuntzak, aurkikundeak eta galerak kontatzeko, kontatzaile bat tarte ezarrita. Fikziozko kontaeretan, irakurleek gure irudime-na proiektatzen dugu pertsonaien gorabehera, sentimendu eta pentsa-menduetan. Irakurketak bere lana ongi egiten duenean, irakurleak bere interpretazio pertsonalak egiten ditu testuari osotarako zentzu jakin bat eman arte.


Irudimena, litekeenaren ahalmena da, mundua eta gauzak kontzien-tziaren bihotzean lotu eta estekatu egiten duen lokarri sekretu hori. Gilbert Durand, <i>Las estructuras antropológicas del imaginario</i>, Fondo de Cultura Económica, 2004
--

ideiak argitu, ñabartu edo osatu egiten ditu. Hala gertatzen denean, irakurketak hun-kipena, irakaspena, aurkikundea dakartza, eta irakurlearen kontzientzia berrantolatzen duen plazer estetikoa.

Horrexegatik behar izaten dugu kontaere-tan bizi den fikzioaren ahotsa: laguntzen digulako zentzua sortzen denboraren ihesaren aurrean eta bizitzako ez-uste eta doloreen aurrean. Ez zentzu transzen-dentala, subjektiboa baizik, bizitzan bar-na ibiltzen eta bizitzari zentzua ematen laguntzen diguna. Esangura horiek asko eta askotarikoak izaten dira, pertsonak eta haien bizitzak diren bezala. Baina hori ez da oztopo izaten testu bat bera irakurri edo entzun dutenek ondoren beren inter-pretazioak partekatu, kointzidentziak eza-gutu eta beren diferentzietan ustekabeko ñabardurak aurki ditzaten. Hala gertatzen da, adibidez, *irakurle klub*en saioetan, haietan, izan ere, testuaren eta irakurle bakoitzaren artean aurrez egon den elkarri-zketa isilak bere oihartzuna aurkitzen du irakurleen artean sortzen den elkarriketan.

Literatura eta irakurketa ateak dira esangura libreki eraikitzeko, irudimenaren sorme-nerako eta ikerketarako aukerak. *Liburu onak* (irakurketa onak sorrarazteko modukoak) eskuztatzea ezinbestekoa da fikziozko literaturak eta irakurketak berezko duten paper esanguratsua har dezaten: denboraren ihesari zentzua eman. Horretarako liburuek irakurle bakoitzaren interes eta gaitasunekiko egokiak behar dute: *“libururik hoberenak”* askotan ez dira pertsona zein talde jakin batentzat *irakurketa hoberenak* izaten (egokienak alegia); ho-rregatik beharrezkoa da, ezer gomendatu baino lehen, hautatzea, gogoan izanda bi irakurle berdin-berdinik ez dela inoiz izaten, nork bere heldutasun pertsonala duela, hizkuntza gai-tasunak maila bateraino edo besteraino garatuak, bere gustuak... hortaz, bitarteko egiten duten helduak (gurasoak, irakasleak maisu-maistrak, liburuzainak...) dira titulu bat irakurle desberdinentzat zenbateraino den egokia juzgatu eta hautatu behar dituztenak, hartarako lehenbizi, kontsultatuz (hor daude liburutegiak, publikoak zein eskolakoak, beren funtse-kin), hurrena irakurriz, eta azkenik, irakurketa mesedegarria izan bada, interesgarria izaten ahal zaionari gomendatuz. Irakurketa gogobetekoa izan denean, gomendioek atea zabal-tzen diete irakurketa partekatua egiteari, etxean zein eskolan (elkarrekin irakurri, ozenki irakurri, liburuak hizpide hartu...).

Literatura fikzioaren mundua aberatsa, emaritsua eta jarraitua da, zabala eta sakona, eta genero guztietan egoten dira liburu onak, oso irakurle desberdinentzat esanguratsuak. Ibilbide bat egin dezagun, bada, fikzioaren zenbait generotan barrena, bakoitzaren ezau-garriak seinaltatuz eta zenbait titulu gomendatuz. Aurrena **mitoak** hartuko ditugu ahotan, jatorrietara eramaten baikaituzte, ondoren **ipuinak** eta, bukatzeko, **eleberriak**.



Mitoak

Mitoek erreallitate guzti-guztietei konponbide bat eman nahi diete. Horregatik, mitoia eta sinboloa zer diren pentsatzen hasi eta pitzadura edo urradura natural baten jostura kulturala dela esan dezakegu. Andrés Ortiz-Osés eta Luis Garagalza, <i>Mitología vasca</i>, Nerea argitaletxea eta Kutxa fundazioa, 2006

Mitologiak sinboloak ditu adierazpide, beren baitan esangura dakarten irudien bi-dezko esangura kontzentrazioak –uso zuria bakea– mundu ikuskera bat kontatzeko, gauzen azken buruko izaeraz eta gizonaren izadiarekiko loturaz hitz egiteko.

Mitoak denbora kolektibo bat hartzen du ahotan, zeinean komunitatea eta haren bali-oko, hau da, tradizioa, nortasun indibidua-lei gailentzen zitzaizkien: denbora hartan bizitzak laburrak izaten ziren, ingurumenak lazki erasanak, eta jakituria esku gutxitan bilduta egoten zen: gehiago bizi eta asko ikusteko zoria izan zutenenetan hain zuzen. Ahozkotasun bete-beteko denbora: Kulta-ura edo zibilizazio bakoitzak bere mito pro-pioak izaten ditu eta horregatik mito horiek paregabeko aukera dira kultura aniztasuna ezagutu eta kultura artekotasunean aurre-ra egiteko, bide ematen baitigute tankera hartzeko zer antza eta zer diferentzia dau-den kultura edo zibilizazio bakoitzak gizaki guztionak diren gauza-gertaearen gainean egiten dituen interpretazioetan.

Ipuinak

Mitoetako sinboloen eta kontaeren muinak ipuinetan irauten du bizirik, herri memo-riaren pieza harrigarriak baitira. Hasierako esangurak ilunduko badaude ere, kontae-ra horien xarmak bere hartan iraun du, eta denboraren joanean, gainera, anbiguitate magiko batez kargatu dira.

José María Merino, Antonio Rodríguez Almodóvarren <i>Cuentos populares españoles</i> liburuaren hitzaurrean, Anaya, 2002

Tradizioko ipuinak ahoz aho eta mendez mende iritsi zaizkigu gaurdaino. Erdi Aroko bildumetan idatziz jaso ziren lehenbiziko al-diz; ipuinak kontaera laburrak dira, konpon-du edo argitu beharreko liskar, hutsune, gabezia edo gatazka abiagarri baten ingu-ruan intriga (espektatiba) bat daukatenak. Eskuarki hiru multzo handitan banatzen dira: **miragarriak** edo **fantasiazkoak**, zeinetan protagonista bihotz-garbi batek gauzaki magiko baten esku-hartzareri esker mesede bat jasoko duen; **ohiturazkoak**, izaera errealistakoak, zeinetan inozentziak eta berezko jakituriak gaiztakeria eta ze-kenkeria uxatzen dituzten; eta **animalia gizakituenak**, zeinen portaeretan gizakion harrokeriak satirizatzen baitira.

Ipuin hauek guztiek aukera ederra ematen dute seme-alabekin batera irakurketa egiteko, edo 1 eta 6 urte arteko ikasleekin, baina ez haiekin solik: ipuinek ez dute adin jakinik eta, handi nahiz txiki, denei berdin hitz egiten diete.

Ahozko tradizioaren ipuinak GOMENDIOAK <i>El mundo en la mente popular vasca-k</i>, José Miguel de Barandiaranenak (Aña-mendi) ezin hobeki aurkezten digu euskal tradizioan mitoek eta ipuinek dituzten lotu-rak; R. Mª Azkuek <i>Euskalerriaren Yakintzako</i> II. zkia osorik tradiziozko ipuinei eskaini zien. X. Etxanizek <i>Geure ipuinak</i> izeneko li-buruan (Pamiela) euskal ipuinen aukerake-ta ona egin zuen. Pamielak berak atera zuen <i>Grimm anaien ipuinak</i> ipuinen bilduma.

Eleberriak

Eleberriaren gaia beste norbait bilakatu nahi duen edo bilakatzen den norbaiten historia izaten da, zerbait ikasi, zerbait irrikatu, eta erdietsi eta gero galdu, edo erdietsi ez eta bila segitzen duen norbaitena; eleberriak irai-gaitzan dauden pertsonaiak eta tokiak ditu gai, denboran aldatzea handiak, etengabe gertatzen ari direnak; eleberriak mugimen-dua atzeman nahi du, berak izan nahi du mu-gimendu eta aldaketa.

Antonio Muñoz Molina, “Mitologías de lo real”, El País, 2011ko apirilaren 11

Eleberria aro modernoak berezkoen duen literatura forma da: hasi Cervantesen *Quijote-tik* eta, beranduago, Defoeren

kutik eraldatze prozesu bat proposatzen diotenak. Zalantzarik eta aldaketarik gabe, ez baitago eleberririk.

Eleberrien gertakizunak ezin bariatuagoko toki-denboretan garatzen dira: horregatik gustu guztietarakoak daude, literatura konplexitate maila guztietakoak, noiz baku-nagoko noiz korapilatugoko katramila du-tenak... Denak bozkarioz murgil daitezen kalitateko testu orok proposatzen duen murgiltze eta eraldatze jokoan.

Mitoen eta sinboloen mundutik hurbilen dauden eleberriak eleberri **fantastikoak** dira eta **abenturazkoak**, errebelazio baten, zerbait aurkitzeko promes baten, eronka baten edo heroiaren on-gaitzek berantagotutako lorpen auerskaloko baten inguruan egituratuak, askotan mapa bat es-kuan duela.

Eleberri fantastikoak GOMENDIOAK <i>Andretxo bizardunaren uhartea</i> (Giltza) Juan Kruz Igerabideren lanak protagonista dituen neska-mutilak globo batean bidaia-tzen dira uharte galdu bateraino, eta han heriotzaren zentzuaz ulertzen. <i>Aeternum: memorias de un joven inmortal</i>, Miguel Án-gel Mendoren liburuan (Anaya), berriz, pro-tagonistak hainbat mende neketan pasa ondoren, bizitzaren balioari antz ematen dio; <i>Behi eskuldun baten memoriak</i> (Pa-miela), Bernardo Atxagaren liburuan, kla-siko bihurtua, munduko zuhurtsasun-eroke-riak hartzen dira aintzat, nor eta... behi ba-ten begietan; <i>De profundis</i> (Norma), Migue-lanxo Pradoren liburuko protagonista ontzi-uperatzete batetik itzultzen da bere maite berraurkitzeko; <i>Haydn-en loroa</i> (Aizkorri), Felipe Juaristirena, Zarauzko hondartzan gertatzen da, gauza bixiak hasten baitira bertan gertatzen ontzi bat urperatzen de-netik aurrera; <i>Duendes-ek</i> (Edebé) eta <i>La gila fantástica-k</i> (Anaya), biak Josep Al-banellenak, eta bai <i>El circo de Baltasar-ek</i> ere (Edelives), Pepe Maestrorenak, fante-siaren lurraldeetara garamazkite beren lege-eta arauekin. Euskaraz Pepe Maestroren <i>Bele zuriaren luma</i> dugu Ibaizabal).

Eleberri beltza, polizi eleberria, misteriokoa GOMENDIOAK <i>Eratzun Ospetsuaren arrastoa</i>, Jordi Serra i Fabra-rena (Ibaizabal), eta <i>Wendik hegan ikasi zuen gaua</i>, Andreu Martinena, (Elkar). <i>La tuneladora</i>, Fernando Lalanarena (Bam-bú), Zaragozako lur azpian izkutatzen den misterioa; <i>Secuestro en el Madroño Club</i>, Blanca Álvarezena (SM), futbol negozio ilu-nak; <i>Turno de noche</i>, Jesús Ballazena (La Galera), memoriarekiko konpromisoa; <i>La voz de madrugada</i>, Juan Manuel Gisberte-na (Edebé), <i>Wendy ataca</i>, Andreu Martíne-na (Algar) eta <i>Marina</i>, Carlos Ruiz Zafónena (Edebé), Bartzelonako ilun aldeetan barnako ibilaldiak; <i>La mansión Dax</i>, César Mallorquí-rena (SM), hemeretzigarren mendeko Madri-len mendekua; <i>No todos los amantes se lla-man Romeo</i>, Pep Albenallena (Grijalbo) eta <i>Papel mojado</i>, Juan José Millásena (Anaya), zentzu bilaketaren gaineko metaforak; Eni-gma liburuetan Elkarrek aspaldian atera zuen Jaume Fusterren <i>Birazko Giltzak</i>
--

Fantasy izena ematen zaie azken hamarka-da hauetan goraldi ederra izan duten titulu horiek: *Harry Potter*ren saga, J.K. Rowling-ena (Salamandra Elkar), *Eraztunen jau-na* (Tolkien, Txalaparta), eta estetika go-tikoaren itzulera –banpiroak, *erdi-biziak*, zoniak eta antzeko banda– Bram Stoke-rren *Drakula* (Elkar) eta Mary Shelleyren *Frankenstein* (Gero) eredu direla. Hemen sinboloek ezin handiagoko papera dute: arima garbiko pertsonaiek baizik ezin izan-nen dute objektu magikoa eskuratu (harri filosofala, eraztuna).

Abenturazko nobelen artean batzuk kapa eta ezpatakoak dira, bestetzuk esplora-tzaileenak... Helduendako literaturan erre-ferentzia dira, adibidez, *Altzorraren uhar-tea*, Stevensonena, *Huckleberry Finn*en *abenturak*, Mark Twainena, *Samarkandako urrezko etxea*, Hugo Prattena, edo *Alatriste kapitaina*, Arturo Pérez Reverterena.

eta irudien, giroen eta garaien berregin-tzaraino (*El ciego que nació en siete ciu-dades*, Luis Luque Lucasena, Homero poetaren bizitzaren gainean), Historiau-rretik XX. mendera bitarte.

Eleberri historikoa GOMENDIOAK Espainiako Gerra Zibilari buruzko zenbait titulu, <i>a priori</i>ko juzgu etikorik ez egiten erakutsen dutenak: <i>Cielo abajo</i>, Fernan-do Mariásena (Anaya); <i>Itzal suntsigarrien gaua</i>, Agustín Fernández Pazena (Pamie-la); <i>Los chicos de al lado</i>, Pilar Mateose-na (Anaya); <i>Noche de alacranes</i>, Alfredo Gómez Cerdárena (SM); eta <i>El fantasma anidó bajo el alero</i> (Emilio Pascual, Ana-ya); Alemanian nazismoaren gorabideari buruz: <i>El último gigante</i> (Miguel Pacheco, Siruela), gai eta garai horren inguruan, <i>Ti-greehizan</i>, Aingeru Epaltzarena (Pamiela); gerra kolonialak: <i>El vengador del Rif</i> (Fer-nando Mariála, Anaya); Independenciaren Gerra: <i>1808. Los cañones de Zaragoza</i> (Fernando Lalana, Alfaguara); Lazarillo gi-dari zuen itsuaren gorabeherak: <i>Palos de ciego</i> (Eduardo Alonso, SM); Tenplarioak: <i>Antxo Lizarra</i> (Juan Kruz Igerabide, Aiz-korri); Julio Césarren heriotza: <i>Guárdate de los idus</i> (Lola Gándara, SM); uholde unibertsalak: <i>El arca y yo</i> (Vicente Muñoz Puelles, Anaya). Agustín Fernandez Paz-en <i>Aire beltza</i>-n, misterioa, beldurrezko nobela eta nobela historikoa nahasten da. Blanca Alvarez-en <i>Hitzak ogiaren truke</i>-n gerra ondoko urteak ukitzen dira.
--

Aurrerapenezko edo **zientzia-fikziozko** eleberriak –“behin batean”dik, “nola litzateke baldin...?”-era bitarteko joko batean–, irakurlearen irudimena gaurko egunetik kanpora aldatzen dute ez iragan, ez orainaldi ez zehazki etorkizun ere ez den denbora batera. Hartan errealtatea irudikatzen da eta horrela egileak gaurko mundua analizatu eta kritikatzeko atre-bentzia har dezake

Zientzia fikziozko eleberriak GOMENDIOAK Klasikoak aurrenik: Verne (<i>Hogei mila le-goako urpeko bidaia</i> eta beste hainbat ti-tulu), H.G. Wells (<i>Munduen gerra</i> eta be-ste hainbat titulu), Bradbury (<i>Fahrenheit 451</i> eta abar) edo Lem (<i>Solaris</i>). Ondoren gaurko egile batzuk: <i>Emigrantes</i>, Shaun Tanena (Barbara Fiore editora); <i>Animario universal del Profesor Revillod</i>, Javier Sánz Castán eta Miguel Murugarrenena (Fondo de Cultura Económica); <i>Perpetuum Mobile</i>, Fernando Lalanarena (Al-faguara); eta <i>Por el camino de Uletra</i>, Martín Casariegorena (Anaya), irakurke-tarik gabeko mundua batean gertatzen den abentura. Manu Lopez de Gasenien <i>Gogoa Lege</i>-n (SM), etorkizuna, zientzia fikzioa eta misterioa nahasten dira.

Maitasun eleberriak GOMENDIOAK Baterakoa nahiz besterakoa, maitasuna dute beti ere hizpide Miran Agur Meabek <i>Maitasuna, zer da maitasuna?</i>-n; Juan Kruz Igerabidek <i>Jonasen Pena</i>-n, (Eve-rest); José Saramagok <i>El cuento de la isla desconocida</i>-n (Alfaguara); Martín Casa-riegok <i>Qué poca prisa se da el amor</i>-en (Anaya); Daniel Nesquensek <i>Mi familia</i>-n (Anaya); Blanca Álvarezek <i>El amor es un cuento</i>-n (SM); Pasqual Alapontek <i>Sí pero no pero sí</i>-n (Algar); Fina Casalderreyek <i>La paloma</i> y <i>el degollado</i>-n (Anaya); Marta Fariasek eta Aitana Carrascok <i>El viaje del bisabuelo</i>-n (Kalandraka); Rodrigo Muñoz Aviak <i>Los perfectos</i>-en (Edebé); Patxi Zu-bizarretak eta Jokin Mitxelenak <i>Musuka</i>-n (SM); Alfredo Gómez Cerdák eta Javier Zabalak <i>Oso tramposo</i>-n (Everest); Artu-ro Navarrok eta Marta Lafuentek <i>El primer beso de Julián</i>-en (Lumen).

Errealismoak garai jakin bateko giroak eta harreman moduak, larriminak eta po-zak erretratatzen ditu, haren bidegabeke-riak, kontraesanak, espektatibak, antsiak eta sufrimendua ikertzen. Eleberrien kontaerako beste kapitulu handia da.

Luis Arizaleta,

2011ko maitatzaren 18an